

MARTXOAK

Eguena
Jueves

7

Goxoen

LEHIAKETA - DASTAKETA

CONCURSO - DEGUSTACIÓN
de dulces

🕒 **19:00** Ibarretxe K.E.

Adierazpen instituzionalaren **IRAKURKETA**
LECTURA de la Declaración Institucional
Goxoen **LEHIAKETA-DASTAKETA**
CONCURSO-DEGUSTACIÓN de dulces

🕒 **18:15** etan **GOXOAK AURKEZTEA**

PRESENTACIÓN DE DULCES
Izen ematea Martxoak 7rarte
Inscripción hasta el 7 de marzo



Iurreta
Euzateko Udala



IURRETAKO "GOXOEN" LEHIAKETA-DASTAKETA - 2019

HELBURUA

"Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna-2019" dela-eta antolatu diren ekintzen barruan, Iurretako "goxoen" Lehiaketa-Dastaketarako oinarriak ezartzea da. Lehiaketa-Dastaketa martxoaren 7an, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, Ibarretxe Kultur Etxean burutuko da (Adierazpen Instituzionala irakurri eta gero).

EZAUGARRIAK

Lehiaketa-Dastaketan parte hartzeko, etxeko gozoezin zerikusia duten edozein motatako "goxoak" aurkeztu daitezke (tarta, pastela, opila, mousse, izoztua, fondant, gailetak, pestinoak, erroskilak, ghoribak, beignetak, e.a.).

Gutxienez 12 errazioko/zati etxeko "goxoa" izan beharko da. Aurrez prestatutako tartak ez dira onartuko.

PARTE-HARTZAILEAK

Iurretan erroldatuta edota bertoko elkarte baten parte hartzen duen 18 urtetik gorako adina duen edonork parte har dezake.

IZEN-EMATEA

Lehiaketa honetan parte hartzea nahi duenak, izena emateko aukera izango du 2019ko martxoaren 7ra arte (goizeko 12:00ak arte) Herritarren Harreta Zerbitzuan (HAZ), gizarte-ongizate@iurreta.eus helbide elektronikoa edo 946215372 telefonoan.

Dastaketa honetan parte hartzeak oinarri hauetan deskribatutako arau guztiak onartzen direla ulertuko da. Oinarri hauetan xedatu ez den guztia, ekintza antolatu dutenen arabera aplikatuko da.

AURKEZPENA

"Goxoen" aurkezpena martxoaren 7an, arratsaldeko 18:15etan izango da, Ibarretxe Kultur Etxean.

"Goxoak" dastatzeko era egokian eta jateko baldintza ezin hobekin aurkeztu beharko dira.

"Goxoarekin" batera, beronen errezeta aurkezteko aukera izango da.

Epai-mahaikoek balorazioa egin ondoren, aurkeztutako "goxoak" dastatzeko aukera egongo da.

Udalak dastatzeko arriskutsuak diren tartak kentzeko eskubidea izango du.

ZENBATEKO FINKOA

Lehiaketa-Dastaketan "goxo" bat aurkeztuz parte-hartzen duenari, Iurretako dendetan elikagaiak erosteko 15 €-tan baloratutako txeke-oparia emango da, zenbateko finko gisa.

EPAI-MAHAIA

Anderebide emakumeen elkarteko ordezkari bat, Iurreta Eleizateko Udaleko ordezkari bat eta Ibarretxe Kultur Etxeko erabiltzaile batek osatuko dute epai-mahaia. Epai-mahaikide bakoitzak bere aldetik aurkeztutako postreak puntuatuko ditu.

BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK

Zaporea eta itxura hartuko dira kontuan (gehienez 10 punturaino eman ahal izango dira): Zaporea: 6 puntu eta Itxura: 4 puntu. Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin, sariak hutsik utz dezaketelarik.

SARIA

Puntuazio gehien duen "goxoak", Iurretako dendetan elikagaiak erosteko 50 €-tan baloratutako txeke-oparia izango du.